

ZERK-NORK ALA ZER-NOR?

1-Adierazi nabarmendutako hitza NORK kasuan edo NOR kasuan dagoen. Horretarako sakatu gainean eta aukeratu:

- 1- **GUK** LAPURRA IKUSI DUGU.
- 2- ATZO EGUNKARIA EROSI ZUEN **AITAK**.
- 3- BILBORA JOANGO DA **AINHOA**.
- 4- **IRAKASLEA** BERANDU IRITSI DA.
- 5- **IKASLEAK** BERANDU IRITSI DIRA.
- 6- **NIK** LIBURU HORI IRAKURRI DUT.
- 7- **ZUK** DIRUA GALDU DUZU.
- 8- **MUTILA** BASERRIAN BIZI DA.
- 9- **ESKOLA** IREKITA DAGO.
- 10-LEIHOA PUSKATUTA DAGO.

Irakurri:

EKINTZA EGITEN DUENA, PERTSONA EZ DENEAN, ZERK EDO ZER GALDETU
BEHARKO GENIOKE ADITZARI.

ZERK=NORK KASUA

ZER= NOR KASUA

2- Adierazi nabarmendutako hitza NORK (zerk) kasuan edo NOR (zer) kasuan dagoen. Horretarako sakatu hitzaren gainean eta aukeratu.

Adibidea:

***Leihoa* puskatuta dago (*ZER* dago puskatuta? *Leihoa*) NOR KASUAN DAGO.**

- 1- **ESKOLA** ITXITA DAGO.
- 2- **TXAKURRAK** HEZURRA JAN DU.
- 3- **KOTXEAK** ISTRIPU LARRIA IZAN DU.
- 4- **AUTOBUSAK** AMONA HARRAPATU DU.
- 5- LARUNBATEAN IZANGO DA **KONTZERTUA**.
- 6- **ZERUA** BELTZA DAGO.
- 7- **ORDENAGAILUA** BERRIA DA.
- 8- ZULO HANDI BAT DAUKA **TEILATUAK**